

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PAGOETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Hilerria kudeatzeko eta administratzeko barne arautegia behin betiko onestea

Pagoetako Kontzejuak, 2025eko maiatzaren 23an, hilerria kudeatzeko eta administratzeko barne erregimeneko arautegia behin betiko onetsi zuen. Halaber, arautegiaren testu osoa argitaratzea erabaki zuen, indarrean sar zedin; hala baitago legez ezarrita.

Hilerria kudeatzeko eta administratzeko barne erregimeneko arautegia

Kontzeju honi Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/95 Foru Arauaren 6. eta 7. artikuluek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/95 Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak emandako eskumenen arabera, Barne Araubidearen Erregelamendu honen bidez arautzen dira Pagoetako hilerriaren kudeaketa eta administrazioa.

Hori guztia, honakoen babesean: 2263/1974 Dekretua, uztailaren 20koa, estatuko hilotzen osasun betebeharren arautegia onartzen duena; 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena eta 202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, EAEko Hilotzen Sanitate Alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duena.

I. titulua Xedapen orokorrak

1. artikulua

Pagoetako hilerria kontzeju honen ondasuna da, onura eta zerbitzu publikokoa. Kontzeju horri dagokio hilerria zuzentzea, gobernatzea eta administratzea eta, horretarako, arautegi hau dago. Horrek ez du eragozten alor honetan eskumenak dituzten beste erakunde batzuen esku hartzerik.

Hilerria, batez ere, Pagoetako herritarrak ehorzteko erabiliko da, udalaren erroldan izaera horrekin inskribatuta badaude, baita herri horretan jaiotakoak eta aurrekoen (hau da, bertan erroldatutakoen edo jaiotakoen) lehen mailako senideak, odol nahiz ezkontza-ahaidetasunez, ehorzteko ere. Horrez ez du eragozten gainerako herritarren ehorzketak baimentzerik, hilerriaren edukierak horretarako aukera ematen badu.

2. artikulua

Pagoetako Kontzejuari dagokio.

- Hilerriaren antolaketa, kontserbazioa eta egokitzapena.
- Hilerriaren barne araubidea.
- Partikularrei baimena ematea hilerrian obrak edo instalazioak egiteko, bai eta haiek zuzentzea eta ikuskatzea ere, alde batera utzita udal lizentzia egokiak eskatu behar diren edo ez.
- Lurzatiak banatzea eta ematea, hilobi emakidak ematea eta edozein motatako ehorzketa eskubideak aitortzea.
- Edozein motako ehorzketa eskubideak emateagatik ezarrita dauden eskubideak eta tasak hartzea, betiere, zuzenbidearekin bat.

- Osasun eta higieine neurriak betetzea.
- Hilerriaren jabea eta erakunde publikoa den aldetik, bere gain hartu behar dituen beste-lako zereginak.

3. artikulua

Hauek dira norbanakoen zereginak:

- Hilerrian ehorzketa duina egiteko eskubidea, jaiotza, arraza, sexu, erlijio edo beste edozein arrazoiren baten ondoriozko bereizkeriarik egin gabe.
- Ehorzketa eskubideak aukeratzea eta gozatzea, arautegiak ezartzen dituen baldintzetan.
- Lurzatiak edo hilobiak egoera egokian mantentzea, estetika eta apaindura publikoaren aldetik.
- Dagokion zerga ordenantzan ezartzen diren zerbitzuen eskubideak edo tasak ordaintzea.
- Bai Pagoetako Kontzejuak, bai beste administrazio edo erakunde eskudunak hilotzen osasun betebeharrei buruz ematen dituztenak errespetatu eta betetzea.

II. titulua

Kudeaketa, administrazioa eta kontserbazioa

Lehenengo kapitulua
Instalazioak, ehorzketak eta lurpetik ateratzek

4. artikulua

4.1. Hilerriak honako instalazio hauek dauzka:

- Lurrean hilobiak egiteko lurra.
- Horma hilobiak.
- Kolunbarioak.
- Hezurtegia edo hobi komuna.
- Zona libreak.

4.2. Lurreko hilobi baten emakidaren titularrak baimena lortzen badu hilobi bat eraikitzeke nahiz obrak edo instalazioak egiteko, betiere arautegi honetan ezarritako baldintzak errespetatuz, ezin izango da hilobia edo obrak eraikitzen hasi, hilobia behar den bezala zuinkatu gabe.

Eraikuntza edo obra amaitzean, partikular arduradunak harri-morroilo edo hondakin guztiak jaso beharko ditu inguruetatik.

4.3. Emakidadunek egiten dituzten hilobiak nahiz edozein motatako obrak, baita jartzen dituzten instalazio finkoak ere, Pagoetako Kontzejuaren eskuetara itzuliko dira emakida bukatzen denean. Behin jarrita, ezingo dira hilerritik kendu, kontzejuaren baimenik gabe.

5. artikulua

Ehorzketen baldintzak.

Ehorzketen berri eman beharko zaio administrazio batzarraren lehendakariari, ehorzketa baino 24 ordu lehenago. Horretarako heriotzaren ziurtagiri medikoa aurkeztu beharko da, baita osasun administrazioak lurra emateko emandako lizentzia edo baimen egokia ere.

6. artikulua

Lurpetik ateratzeko baldintzak.

Lurpetik ateratzeko eskaera hamar egun lehenago egin beharko da, gutxienez, eta legeak ezartzen dituen osasun baimenak aurkeztu beharko dira.

Lurpetik ateratzea astelehenetik ostiralera egingo da, 09:00etatik 18:00etara bitartean.

Bigarren kapitulua
Administrazioa

7. artikulua

Hilerriaren kudeaketan edo administrazioan helburu hauek sartzen dira:

- Hilerria administratzea eta onik zaintzea, eta haren ordena eta garbitasuna zaintzea.
- Gorpuak edo hondakinak ehorzteko edo lurpetik ateratzeko baimena, eta beharrezko diren beste edozein jardun ere. Betiere, hilotzen osasun betebeharrei buruzko legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.
- Hilerriaren elementu, eraikin eta instalazioak zaindu, mantendu eta garbitzeko lan eta zerbitzuak egitea, bai eta elementu horien funtzionamendua ere.
- Lur emateko zedulak egitea.
- Ehorzketen erregistro liburua eta hilobien eta horma-hilobien fitxategia kontrolatzea eta erregistro liburu guztietan egoki diren idazpenak egitea.
- Tituluak ematea eta eskualdatzeak idatziz jasotzea, kontzejuak hartutako erabakien arabera.
- Ehorzketa zerbitzuen eskubideak eta tasak kobratzea, zerga ordenantzak dioenaren arabera.

8. artikulua

Pagoetako Kontzejuak, dagozkion helburuak betetzeko, administrazio eginkizunak eta egin-kizun teknikoak gauzatzeko ahalmena izango du eta bereziki jarraian zehazten diren hauek oso-osorik betetzeko:

- Edozein motatako ehorzketa eskubideen emakida, aitorpena eta aldaketari buruzko es-pedienteak bideratu eta ebaztea, baita horien onuradunak izendatzea, eta eskubide horiei da-gozkien tituluen izapideak egin eta tituluak ematea ere.
- Gorpuak eta giza hondakinak ehortzi, lurpetik atera, lekualdatu, erraustu eta murrizteko baimena; betiere, eskumena duen osasun administrazioaren nahitaezko baimena badute.
- Hilerriaren kudeaketari dagozkion helburuekin bat datorren beste edozein eginkizun, hala adostu eta gero.

9. artikulua

Horma hilobiak eta, hala dagokionean, hilobiak, baita objektuak eta instalazioak ere, garbitzea eta onik zaintzea partikularren ardura izango da. Partikular batek bere ehorts lekua behar bezala garbitzen edo onik zaintzen ez badu eta hondatuta baldin badago, kontzejuak eragindako eskubidearen titularrari egoera hori zuzentzeko eskatuko dio. Horrek, ematen zaion epean lanak burutzen ez baditu, kontzejuak egin ahal izango ditu lanok, modu subsidiarioan, partikularren kontura, eta haren ondarearen kontu, eta, beharrezkoa bada, premiamenduko bideari ekingo dio.

10. artikulua

Lur emateak, lurpetik ateratzeak, lekualdaketa eta hilerrian egiten diren bestelako lanak partikularrek egingo dituzte, aldez aurretik baimena eskuratu ondoren. Lan horiek kontzejuko ordezkari baten ikuskaritzapean egingo dira, eta lan horiek sortzen dituzten hondakin guztiak jaso beharko dira. Lursaila lanak abiatu aurretik zegoen egoera berean utzi beharko dute.

Salbuespen gisa, eta interesdunek aurretik berariaz eskatzen badute, kontzejuak lan horiek egitea beste bati esleai diezaioke. Horretarako, eskatzaileek aldez aurretik ordaindu beharko dituzte lan horien gastuak.

11. artikulua

Pagoetako Kontzejuak hilerriaren barruan ordenari eutsiaraziko dio, eta bertako eginkizunek eskatzen duten begirunea exijituko du. Horretarako, honako arauak betearaziko ditu:

— Kontzejuak hilerriaren zaintza orokorra egingo du; hala ere, ez du bere gain hartuko hilobietan, instalazioetan eta hilerrian jar daitezkeen gauzetan beste batzuek egiten dituzten lapurreta eta hondaketen gaineko erantzukizuna, indarrean dagoen legerian ezarritako kasue-tatik kanpo.

— Ehorzketa obrak eta inskripzioak hilerriaren eginkizuna errespetatuz egin beharko dira. Inoiz ere ez da baimenduko eraikuntza edo instalaziorik gainditzen badu esleitutako lurzatiaren zabalera edo luzera. Kontzejuak ezarriko ditu hilobien sistema, itxitura, tamaina, kolorea eta gainerako elementuak, haietan berdintasun egokia gordetzeko xedeaz.

— Partikularrek egingo dituzte ehorzketa unitateen garbiketa, mantentze eta apainketa lanak, beti ere instalazioak errespetatuz. Jardun horiek bukatuta, lanerako erabili duten espazioa eta haren inguruak garbi eta apain utzi beharko dituzte. Beraz, obra hondakinak, zaborrak eta laneko materialak berehala jaso beharko dituzte.

III. titulua
Hileta eskubideak**I. kapitulua**
Lurreko hilobien eta gaineko hileta eskubideak**12. artikulua**

Hileta eskubidea lurreko hilobiak, horma hilobiak, eta kolunbarioak erabiltzeak eta gozatzek osatua da, hurrenez hurren, eta hilotzak eta gorpuzkiak lurperatzeko bakarrik ematen da. Kontzejuak gordetzen du jabari era erabilera publikoko ondasunaren jabetza.

Arautegi honetan jasotzen diren ehorzketa eskubideak arautegi honetan bertan ezartzen diren baldintza eta epeetan ehorzketa eskubidea baliatzea dute helburu; betiere, aurretik tasak ordainduta.

Ehorzketa eskubidea emateko, hilerria lurreko hilobietan, horma hilobietan eta kolunbarioetan banatuko da, eta horiek dagozkien erregistro liburuetan zenbakituko dira koerlatiboki.

13. artikulua

13.1. Udal erroldan inskribatuta dauden Pagoetarrek, udalerrri horretan jaiotakoek eta aurretik esandakoen (hau da, hau da, bertan erroldatutakoen edo jaiotakoen) lehen mailako senideek, odol nahiz ezkontza-ahaidetasunez, eskatu ahal izango dute lurreko hilobi bat, horma hilobi bat edo kolunbario bat eman dakiela, indarrean dagoen osasun araudia eta arautegi honetan ezarritakoa errespetatuz erabiltzeko.

13.2. Emakidaren epea 15 urte izango da lurreko hilobietarako, eta 30 urte horma hilobi eta kolunbarioetarako.

13.3. Emakida eskubidea hasierako epearen iraupen berdina duen beste aldi batez luza daiteke, baldin eta interesdunak eta kontzejuak berariaz eta idatziz adierazten badute adostasuna.

13.4. Luzapenik ez badago edo luzapena bukatu bada, eskubidea kontzejuaren eskuetara itzuliko da, emakidadunak egindako edozein motatako obra edo instalazio finkoak barne direla. Bertan dauden gorpuzkiak hezurtegi komunera eramango dira, egoki diren tasak aldeztu aurretik ordainduta, salbu eta titularraren senideek emakidaren edo luzapenaren epemuga amaitu baino hilabete lehenago berariaz eta idatziz eskatzen badute hilkutxan ardura hartzea, haiek beste hilerri batera eramateko.

II. kapitulua
Titulartasuna eta eskualdaketak

14. artikulua

14.1. Ehorzketa eskubidearen barnean sartzen da lurreko hilobien, horma hilobien eta kolunbarioen erabilera, emakida araubidean, betiere arautegi honetan adierazten diren baldintzetan.

14.2. Pagoetako Administrazio Batzarrak eman eta aitortuko ditu ehorzketa eskubideak, interesdunak hala eskatuta, arautegi honetako manuen eta toki erregimeneko arauen arabera.

14.3. Eskatutako ehorzketa eskubideen esleipena aurkezpen hurrenkera oinarri hartuta emango da.

15. artikulua

Aurreikuspen aseguru etxeak edo antzekoak ezin izango dira izan ehorzketa eskubideen titularrak. Beraz, kontzejuaren aurrean ez dute ondoriorik izango ituntzen dituzten polizen edo kontratuen klausulek, baldin eta asegurudunei ehorzketa eskubidea ordaintzeko beharrezko kapitala emateko eskubideaz gainera beste eskubideren bat estali nahi badute.

16. artikulua

16.1. Honako kasu hauetan ehorzketa eskubidea iraungitzat jo eta Pagoetako Kontzejuari itzuliko zaio:

- Emakida epeak igarotzea, berritzeko eskatu gabe.
- Interesdunari tasak ordaintzeko eskatu ondoren, dagozkionak ordaintzen ez baditu.
- Hileta eskubidea ordenantza honetan onartzen ez den beste norbaiti eskualdatzen bazaio.
- Titularrak berariaz uko egiten badio.
- Hilobien aurri egoeragatik edo hilobiak bertan behera uzteagatik, interesdunak ez di-tuenean betetzen konpontzeko eta egokitze emandako epeak, edo hilobi eskubidea araudi honetan xedatutakoaren aurka erabiltzeagatik.

16.2. Ehorzketa eskubidearen epea amaitu dela aitortzeak ezarritako emakida iraungitzea ekarriko du, eta ez da egongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik. Aitorpen horrek adminis-trazio espedientea izapidetzea ekarriko du administrazio batzarreko lehendakariaren ekimenez eta kontzejuak hala adostuta, jendaurrean 15 egunez egon ondoren.

16.3. Ezarritako epea edo, bestela, bidezko luzapena igarotzeagatik emakida eskubidea auto-matikoki iraungitzen denean edo aipatu epea igaro baino lehen, aurrez administrazio espedien-tea aztertuta, emakida eskubidea ebazten denean, kasuan kasuko hobian berriki ehorzketaren bat jazotzen bada, gorpua lurpetik ateratzeko legez ezarrita dagoen epea errespetatuko da beti. Beraz, emakida eskubidea legezko epe hori bete arte luzatu dela ulertuko da. Aipatu epea azken ehorzketa egin ondoren hasiko da zenbatzen. Hala, hori igaro ondoren, iraungita geratzen da.

17. artikulua

17.1. Emakidaren ehorzketa eskubideak "mortis causa" egintzen bidez dohainik eskualdatu ahal izango dira, nahitaezko jaraunsearen alde bakarrik.

Berariaz izendatu diren ehorzketa eskubidearen onuradunak bi edo gehiago direnean, akor-diorik ezean, titulartasuna gainontzekoek gehiengoz izendatzen duten jaraunskideari aitortuko zaio, kausatzailea hil edo jaraunselearen adierazpenaren egintza burutzeko datatik hiru hilabeteko epean. Gehiengorik ez badago, eskubidea adinez nagusiena den jaraunskidearen aldekoa izango da.

17.2. Ehorzketa eskubidea eskualdatzeko, eskatzaileak modu fede-emailean egiaztatu beharko du aurreko titularraren jaraunsle bakarra edo, hala badagokio, ehorzketa eskubidearen onuradun bakarra dela. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Aurreko titularraren heriotza ziurtagiria.
- Eskatzailearen jaiotza ziurtagiria (jatorrizkoa).
- Familia liburua.
- Kausatzailearen testamentua edo jaraunsleen adierazpena (aurreko titularra).

Jaraunsle bat baino gehiago egonez gero, gainontzekoen berariazko ukoa, eskatzen den eskualdatzeko ehorzketa eskubideari dagokionez. Ukoa notarioaren aurrean edo Pagoetako Administrazio Batzarreko lehendakariaren aurrean legeko jaraunsle guztiek sinatutako idazkian jasota geratu behar da.

17.3. Eskualdaketa eskatzailea ehorzketa eskubidearen onuradun posible bakarra dela behar bezala egiaztatuta geratu ez bada, kontzejuak eskubidearen eskualdaketa ukatu ahal izango du. Hala, aurreko titularraren izenean egoten jarraituko du. Edozelan ere, senitarteko interesdunak izango dira ehorzketa eskubideak frogatu beharko dituztenak, horiek baliatu baino lehen.

17.4. "Inter vivos" egintzen bidezko ehorzketa eskubideen eskualdaketa eta kostu bidezko eskualdaketa erabat debekatuta daude.

17.5. Eskualdaketa kasuan kasuko tasak ordaindu ondoren egingo da, dagokion zerga ordonantz xedatutakoari jarraiki, eta emakidarako geratzen den epea kontuan hartuta; izan ere, ondorengo eskualdaketa ez dute aldatzen hasieran emandako eskubide epearen iraupena.

17.6. Emakida eskubidearen titularra hiltzen bada testamentua egin gabe edo nahitaezko jaraunslerik utzi gabe, hileta eskubidea kontzejuaren eskuetara itzuliko da.

18. artikulua

Emakidetan adierazitako epea gorabehera, arrazoiaren batengatik hilerria aipatu epea amaitu gabe itxi beharko balitz, eskubideen titularrek igarotzeke dauden epeengatik kalte-ordainak jaso ahal izango dituzte. Hala ere, kalte-ordainak kalkulatzeko, ordaindutako tasaren zenbatekoa hartuko da aintzat eta ez, beraz, emakidadunak egindako hilobi, lan edo instalazioena. Hori guztia, hilerri berria eraikitzen ez bada eta gorpuzkiak tokiz aldatzen ez badira, emakida erregimena eta kasuan kasuko ehorzketa eskubideetan igarotzeke dauden epeak errespetatuz; kasu horretan ez da kalte-ordainetarako eskubiderik egongo.

IV. titulua Erregistro liburuak

19. artikulua

Kontzejuan honako erregistro liburuak egingo dira:

- Ehorzketen erregistro liburua.
- Gorpua lurpetik ateratzearen eta lekualdaketen erregistro liburua.
- Erabilera pribaturako emakida araubidean lagatako hilobien, horma hilobien eta kolunbarioen erregistro liburua.

Fede emaileak titulu nominatiboa emango du lurreko hilobi, horma hilobi edo kolunbario bakoitzeko, lehendakariaren oniritziarekin.

20. artikulua

Lurreko hilobien, horma hilobien eta kolunbarioen erregistro liburuan honako berezitasun hauek adieraziko dira:

- Titularraren izen-abizenak eta gainerako datuak.
- Esleipen data eta emandako eskubide mota, baita horren amaiera data ere.

- Hilobien identifikazioa, kokaleku zehatza eta kasuan kasuko zenbakia adieraziz.
- Ehortzitako pertsonen izen-abizenak eta gainerako datuak; egingo diren ehorzketen datak idatzita jaso behar dira.
- Emakida iraungitzeagatik edo beste arrazoiren batengatik, hilobia kontzejuaren esku geratuko den data.

21. artikulua

Ehorzketen erregistro liburuan hauxe zehaztuko da:

- Hildakoaren izen-abizenak eta gainerako datu pertsonalak.
- Helbidea edo jaioterria.
- Heriotza data, kasuan kasuko ziurtagirian jasotakoarekin bat.
- Ehorzketa data.
- Ehorzketa egiten den erabilera pribatuko hilobiaren, horma hilobiaren edo kolunbarioaren egoera, zehatz-mehatz identifikatzeko behar diren xehetasunekin.
- Ehorzketa baimentzen duen epaitegia.

22. artikulua

Gorpua lurpetik ateratzearen eta lekualdaketen erregistro liburuan honako hauek jasoko dira:

- Gorpuaz edo gorpuzkiez arduratzen den pertsonaren izen-abizenak eta gainerako datu pertsonalak.
- Lurpetik aterako den edo lekualdatuko den gorpua izen-abizenak eta gainerako datuak.
- Heriotza data.
- Gorpua eramaten den tokia edo hilobia.
- Lekualdaketa edo gorpua lurpetik ateratzea baimendu duen agintaria eta baimenaren data.

V. titulua

Arau haustek eta zehapenak

23. artikulua

Arau haustek.

23.1. Hauek dira arau hauste arinak:

- Hilobi bat eraikitzen hastea, lurreko hilobiaren gainean obrak edo instalazioak egitea, lurra behar bezala zuinkatu gabe kontzejuko ordezkari bat bertan dagoela.
- Hilobiaren inguruan gera daitezkeen harri morroiloak edo hondakinak ez jasotzea.
- Instalazioak garbi ez edukitzea.
- Kontzejuaren baimenik gabe hilerriaren barruan edozein obra egitea.

23.2. Honako hauek arau hauste larriak dira:

- Hilerriaren barruan gizalegezko arauak ez betetzea.
- Hilobien gaineko eskubideak saltzea, eskualdatzea edo trukatzea, Kontzejuaren berariazko baimenik gabe.
- Urtebete bi arau hauste arin egitea.

24. artikulua

Zehapenak.

Zehapen arinei gehienez ere 600,00 euroko isuna ezarriko zaie. Zehapen larriei, berriz, gehienez ere 1.500,00 euroko isuna ezarri ahal izango zaie.

Xedapen gehigarria

Arautegi honetan arautu gabeko gaietan, Hilotzen Osasun Zaintzaren arloan indarrean dauden arautegian xedatutakoa beteko da.

Azken xedapena

Arautegi hau, behin betiko onetsi ondoren, indarrean jarriko da ALHAOn oso-osorik argitaratu ondorengo hamabosgarren egun baliodunean.

Pagoeta, 2025eko uztailaren 3a

Lehendakaria

JOSÉ ÁNGEL RUIZ DE SAMANIEGO RAMÍREZ DE LA PISCINA